



Ebazpena, 2022ko azaroaren 11koa, Justizia Administraziooko zuzendariarena, Irungo Zerbitzu Erkide Prozesal Oroker eta Betearazpenekoan kudeatzaile arduradunaren lanpostua zerbitzu-eginkizunetan eta ordezkapen bertikalean betetzeko prozedura arautzen duena, lanpostua 380000/4.

Botere Judizialaren Lege Organikoak 527. artikuluko 1. apartatuan xedatzen duenari jarraikiz, hutsik dauden lanpostuak, horiek betetzeko martxan dauden sistemak ebatzi arte edo, ebatzi direnean, bete diren arte (hautagai egokirik ez dagoelako), horretarako baldintzak betetzen dituzten funtzionarioek bete ahal izango dituzte, zerbitzu-eginkizuna tarteko. Zerbitzu-eginkizuna borondatezkoa edo nahitaezkoa izan ahalko da. 527. artikulua 2. apartatuak adierazten du, salbuespen gisa, ordezkapen bidez bete ahal izango direla hutsik dauden lanpostuak edo titularra kanpoan dagoenean.

Abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuak (Justiziako Administrazioaren zerbitzura lan egiten duen pertsonalaren Erregelamendua —laneratzeari, lanpostua betetzeari eta lanbidea sustatzeari buruzkoa— onartzen duenak) 70. artikuluan xedatutakoaren arabera, “Premiazko edo larrialdietako arrazoiak direla-eta bitarteko funtzionarioak izendatu ahalko diren arren, lanpostu bat hutsik geratzen denean zerbitzu-eginkizun bidez bete ahalko du lanpostu horretan aritzeko ezarritako baldintzak betetzen dituen funtzionario batek.” Era berean, dekretu horren 74. artikulua honako hau adierazten du: «Hutsik dauden lanpostuak, edo titularra kanpoan dutenak iraupen luzeko lizentzia edo baimenengatik, salbuespenez, eta betiere Justizia Ministerioak eta eskumenak jaso dituzten autonomia-erkidegoetako dagokien organoek bitarteko funtzionarioekin bete behar direla uste ez badute, funtzionario titularrek bete ahal izango dituzte aldi baterako, ordezkapen bidez».

1451/2005 Errege Dekretuak 1. artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako funtzionarioena da Ebazpen honen aplikazio-eremua.

Justizia Administrazioako Zuzendaritzak Justizia Administrazioako langileen arloan dituen egitekoak ezartzen dituen urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuaren 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Helburua.

Deialdi honen helburua da zerbitzu-eginkizunen eta ordezkapen bertikalaren bidez betetzea kudeatzaile arduradunaren lanpostua Irungo Zerbitzu Erkide Prozesal Orokor eta Betearazpenekoan, hots, I. Eranskinean zehazten dena.

Bigarrena.- Parte hartzeko baldintzak.

Parte hartzeko aukera izango dute Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko karrerako funtzionarioek, Euskal Autonomia Erkidegoko barruti judizialen batean lan egiten badute eta zerbitzu aktiboan badaude.

Hirugarrena.- Merezimenduen balorazioa.

Beren burua aurkezten duten pertsoneri esleituko zaizkie deitutako lanpostuen zerbitzu-eginkizunak edo ordezkapen bertikalak, baldintzak betetzen badituzte, eta, edonola ere, puntuazioaren arabera, honako balorazio-irizpide hauei jarraiki:

- 1. Lantokiko zerbitzuak.** Lanpostua deitzen den lantokian Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoan zerbitzuak ematen egoteagatik, 20 puntu emango dira.
- 2. Antzintasuna** Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoan, abenduaren 7ko 1451/2005 Errege Dekretuaren 48.1.a) artikuluan antzintasuna baloratzeko ezarritako baremoaren arabera. Hala, kidegoko egiazko zerbitzuengatik bi puntu emango dira zerbitzuan egindako urte bakoitzeko; epe laburragoak, berriz, proportzioan zenbatuko dira, hilabeteen edo egunen arabera. Ondorio horietarako, hilabeteak hogeita hamar egunekoak direla aintzat hartuko da. Kontzeptu horren bitartez gehienez ere **60 puntu** eskuratu ahal izango dira.

3. Euskararen ezagutza-maila (lanpostua betetzeko baldintza ez denean). Ekainaren 29ko 174/2010 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioiko hizkuntza-normalkuntzari buruzkoan, eta euskararen normalizaziorako planak garatzen dituzten gainontzeko xedapenetan ezarritakoaren arabera, hizkuntza-eskakizunik ezarrita ez duten lanpostuetan honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- 2. HE egiaztatzea: 2: 6 puntu.
- 3. HE egiaztatzea: 3: 8 puntu.
- 4. HE egiaztatzea: 4: 12 puntu.

4. Hobekuntza-ikastaroak egitea.

4.1. **Kudeaketa hobetzeko** berriazko prestakuntza. Organismo publikoek edo ospea duten erakundeek zuzendaritza-gaitasunekin, ekipoak eta tresnak zuzentzeko abileziarekin eta etengabeko hobekuntza eta kudeaketarako sistemekin lotuta deitzen edo homologatzen dituzten hobekuntza-ikastaroak baloratu egingo dira, behar bezala alegatu eta egiaztatzen badira. Kontzeptu horretan **10 puntu** emango dira gehienez.

4.2. **Prestakuntza orokorra.** Organismo publikoek edo ospea duten erakundeek deitu edo homologatzen dituzten eta behar bezala alegatu eta egiaztatzen diren gainerako hobekuntza-ikastaroetan, baldin eta lanpostuaren berezko funtzioekin lotuta badaude eta hura betetzeko interesgarri izan badaitezke, gehienez ere **10 puntu** eskuratuko dira.

Berriazko prestakuntzarako nahiz prestakuntza orokorrerako, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Ez dira hobekuntza-ikastarotzat hartuko balioesteko moduko titulu bat lortzeko egin beharreko ikasketa-programan sartutako ikastaroak.
- Ikastaroaren ziurtagiriaren kopia konpultsatuaren bidez egiaztatuko dira, eta ziurtagiri horrek ikastaroaren amaiera-data eta ordu-kopurua adierazi behar ditu. Eskatzaileari informazio gehigarria eskatu ahal izango zaio.
- Balorazioa honako baremo honetan adierazitako puntuazioaren arabera egingo da:
Ikastaroaren ordu-kopurua eta dagokion puntuazioa:
10 eta 19 ordu bitartean: 0,3 puntu.
20 eta 29 ordu bitartean: 0,7 puntu.
30 eta 49 ordu bitartean: 1,3 puntu.
50 eta 99 ordu bitartean: 2 puntu.

100 eta 199 ordu bitartean: 3,3 puntu.

200 eta 499 ordu bitartean: 6,7 puntu.

500 ordu edo gehiago: 10 puntu.

5. Proiektua egitea. Ebazpen honekin batera aurkeztutako II. Eranskinean proiektuaren edukia (garatu beharreko atalak) eta balorazio-irizpideak (balioesteko moduko ezagutzak eta trebetasunak) zehazten dira. Eskabidearekin batera, nahitaez aurkeztu beharko da proiektua, eta proiektuan trebetasun jakin batzuk ebaluatu ahaliko dira: egoera jakin bat diagnostikatu eta irtenbideak diseinatzeko trebetasuna, baliabideen plangintza egitekoa, eta ezarritako helburuak bete direla egiaztatzeko irizpide eta teknikak aplikatzekoa. Kontzeptu horretan gehienez ere **30 puntu** emango dira.

Laugarrena.- Eskabideak aurkeztea.

1. Deialdian parte hartzeko eskabideak Justizia Administrazioako Zuzendaritzara bidali behar dira, helbide elektroniko honen bidez: personal_jus_provision@euskadi.eus
2. Hautagaiek ebazpen honen III. eranskineko ereduaren arabera aurkeztuko dute eskabidea, deialdia Justiziako Langileen Atarian argitaratu eta hurrengo egunetik 10 egun balioduneko epean.
3. Eskabideak onartzeko epea amaitu aurretik soilik egin ahal izango zaio uko lehiaketan parte hartzeari.
4. Eskabideak aurkezteko epea bukatzen denean balioetsiko dira merezimenduak.

Bosgarrena.- Esleipenak.

1. Lanpostuak emateko lehentasun-hurrenkera ebazpen honetako hirugarren oinarrian ezarritako baremoen arabera lortzen den guztizko puntuazioak emango du.
2. Guztizko puntuazioan berdinketarik izanez gero, mailaren irizpidea hartuko da kontuan ebazteko.
3. Justizia Administrazioaren Zuzendaritzak aztertuko du eskatzaileek parte hartzeko baldintzak betetzen ote dituzten. Halaber, bera arduratuko da merezimenduak baloratzeaz.

Seigarrena.- Prozedura behin-behinean ebaztea.

1. Deialdi hau behin-behinean ebatziko du. Onartutako langileen behin-behineko zerrenda (baremoko atal bakoitzean lortutako puntuazio eta guzti) eta baztertutako langileen zerrenda Justiziako Langileen Atarian argitaratuko dira.

2. Behin-behineko ebazpenaren aurka alegazioak aurkeztu ahal izango dira, atarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hamar eguneko epean.
3. Ezarritako epean erreklamaziorik egiten ez bada, ulertuko da ados dagoela eta onartzen dituela jasotako datuak, baremazioa eta behin-behinean esleitutako komisioa.
4. Nolanahi ere, behin-behinean esleitutako zerbitzu-eginkizunek ez dute eskubiderik ematen behin betiko ebazpenari dagokionez.

Zazpigarrena.- Behin betiko ebazpena eta lanpostuaz jabetzeko epea.

1. Alegazioak aztertu ondoren, deialdi hau behin betiko ebatziko du Justizia Administrazioako Zuzendaritzaren Ebazpenak. Ebazpen hori Justiziako Langileen Atarian argitaratuko da.
2. Esleipenaren ebazpenean zehaztuko da lanpostuaz jabetzeko epea.

Zortzigarrena.- Errekurtsoak.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari. Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Justizia Sailburuordetzari, hilabeteko epean, ebazpen hau Justiziako Langileen Atarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Gora jotzeko errekurtsua jarri denetik hiru hilabeteko epean ebazpenik ez badago, ezetsizat joko da, eta administrazioarekiko auzien bidea libre geratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 11a

Jon Arturo Uriarte Unzalu

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA

**I ERANSKINA**

Saila: Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila

Zentro Kudeatzailea: Justizia Administrazioako Zuzendaritza

Destinoko zentroa: Zerbitzu Orokor Prozesal Erkidea eta Betearazpenkoa

Lanpostua	Dotazioa	Lanpostuaren izena	Kidegoa
380000	4	Zerbitzu Orokor Prozesal Erkide Orokorreko Sekzioko Arduraduna	Prozesu eta Administrazio Kudeaketa



II. ERANSKINA

PROIEKTUAREN EDUKIA

Proiektu bat egiteko eskatu da, eta, horretarako, honako jarraibide hauek bete behar dira:

1. **Proiektuaren diseinua** (adib.: diagnostikoa, deskribapena, helburuak,...)

1.1. Pertsonak kudeatzea:

- Aukeratu den Zerbitzu Erkideko lantaldeak
- Zereginak lehenesteko eta ordezkapenak egiteko araubidea aplikatzea
- Funtzionario berri bati harrera ematea
- Informazioa partekatzea
- Gatazkak konpontzea
- Zer egingo zenuke pertsonak motibatzeke

1.2. Zerbitzuak kudeatzea:

- Aukeratu den zerbitzu erkidearen helburuak
- Aukeratu den zerbitzu erkidearen prestazioak
- Zerbitzu-gutuna: aukeratu den zerbitzu erkidearen konpromisoak eta adierazleak
- Kudeaketa hobetzeko aplikatu beharreko sistemak

2. **Beteazpena eta ezarpena** (adib.: plangintzak, faseak eta jarduerak, giza baliabideak eta bitarteko materialak, kronograma,...)

- Urteko kronograma, aukeratu den zerbitzu erkideko jarduera nagusiak.

3. **Jarraipena edo amaierako ebaluazioa**

- Goren uneak eta jarraipen-adierazpenak (jardueraren edo emaitzen adierazleak) aukeratu den zerbitzu erkidearen funtzionamenduan.

BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Edonola ere, deskribatutako proiektua aurreko atalean adierazitako egitura estandarrera doitu beharko da, eta honako balorazio hau ezarriko da:

- PROIEKTUAREN DISEINUA. Gehienez ere, 20 puntu emango dira.
- BETEARAZPENA EDO EZARPENA. Gehienez ere, 5 puntu emango dira.
- JARRAIPENA EDO AMAIERAKO EBALUAZIOA. Gehienez ere, 5 puntu emango dira.

HEDADURA

Proiektuak gehienez ere hamar orri izango ditu bi aldeetan, tarte bikoitzean.

AURKEZPENA

Proiektua eskabidearekin batera aurkeztuko da.